



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: BIOLINA

Nori zuzenduak?

Graduko ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten **biolin** ikasleei

2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetarako sarrera probak egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek onarpen eskubidea gordetzen du jasotzen diren izen-emate kopuruaren arabera.

Orientazio Jardunaldi honek bi atal ezberdin izango ditu eta erabat **online** egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **[izena emateko orria](#)** betez. Epea **2021eko apirilaren 11n** amaituko da.

Jardunaldien helburuak

Biolin Interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei orientazioa eta informazioa luzatzea: sarrera proben egitura, ikasketetan sartzeko eskatzen den maila eta erreperitorio egokia.

Jardunaldiaren egitura

Bilera informatibo orokorra

Apirilak 16, ostirala, 11.00etan

Ordu beteko bilera informatiboan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak,osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, Sarrera Proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak.

Espezialitateko irakasleekin saioak

BUCATARU, Catalin: **apirilak 16, ostirala, 12:30etan**
GOURDJIA, Liana: **apirilak 16, ostirala, 16:30etan**
ITURRIAGAGOITIA, Aitzol: **apirilak 16, ostirala, 14:30etan**
SAMOUIL, Tatiana: **apirilak 17, larunbata, 12:00etan**

- Graduko ikasketetan sartzeko eskatzen den maila eta erreperitorioaren inguruko aholkuak.
- Proba instrumentalaren inguruko orientazio zehatza.
- Irakasleekin saio praktikoa
- Irakasleen eskutik arreta pertsonalizatua
- Topaketa bakoitzaren iraupena: ordu t'erdi inguru

Izena ematen dutenek irakasle guztien saioetara joateko aukera izango dute.

Izena ematen dutenek esteka bat jasoko dute online saio bakoitzaren bezperan.

Biolin jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll Hari Departamentuko buruarekin: **mmoll@musikene.eus**